## Faktura elektronikoaren arloko berrikuntzak hornitzaileentzat: pertsona juridikoak behartuta egongo dira GFAra eta Gipuzkoako udaletara faktura elektronikoak bidaltzera

1. **Urola Erdiko Mankomunitateak** ahaleginak egiten jarraitzen du hornitzaileei ordaintzeko epea murriztu eta haien fakturen tramitazioari buruz ematen dien informazioa hobetzeko. Faktura elektronikoei buruzko araudia aplikatuz, **2015eko urtarrilaren 15etik aurrera abiatuko da Gipuzkoako fakturen sarrera puntu orokorra (FSPOe).** Puntu orokorraren bidez, hornitzaileek eta kontratistek Gipuzkoako Herri Administrazioari bidaltzen dizkien faktura elektronikoak jasoko dira.

   **Urola Erdiko Mankomunitateak** ahalik eta gehien erraztuko du sistema berrirako aldaketa, jabetzen baita hornitzaileek sistema berrira egokitzeko ahalegin handia egin behar dute.

   Urola Erdiko Mankomunitateko web orrian "Fakturazio elektronikoa" izeneko esteka argitaratu da, eta bertatik fakturazio elektronikoaren programara sartzeko aukera dago.

2. **Sarrera puntu orokorrak Gipuzkoako administrazio publiko hauei emango die zerbitzua:**
   - GFA.
   - GFAren menpeko organismo autonomoak (Uliazpi eta Kabia).

## Novedades para los provedores en materia de factura electrónica: Las personas jurídicas estarán obligadas a enviar facturas electrónicas a la DFG y a los entes locales de Gipuzkoa

1. **Urola Erdiko Mankomunitatea** continúa trabajando para reducir el plazo de pago a proveedores y mejorar la información que les facilita acerca de la tramitación de sus facturas. En aplicación de una nueva normativa en materia de facturas electrónicas, **a partir del 15 de enero entrará en funcionamiento el denominado *"Punto General de Entrada de Facturas de Gipuzkoa"* (PGEFe).** A través de este Punto General se recibirán las facturas electrónicas que remitan los proveedores y contratistas a la Administración Pública guipuzcoana**.**

   **Urola Erdiko Mankomunitatea**, consciente del esfuerzo que supondrá para los proveedores la adaptación al nuevo sistema, facilitará en todo lo posible la transición al mismo.

   Figura en la página web de la Mancomunidad Urola Medio un enlace denominado "Facturación Electrónica" desde el cual se puede acceder al programa requerido para estos fines.

2. **Este Punto General de Entrada prestará servicio a diferentes administraciones públicas de Gipuzkoa:**
   - la DFG
   - los organismos autónomos dependiente de la DFG, Uliazpi y Kabia


UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11, 1.a, 2. bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

- Gipuzkoako udalak.
- Bestelako organismo publikoak.
- **Urola Erdiko mankomunitatea**

3. Sarrera puntu orokorraren ezaugarriak eta eremua 2014ko abenduaren 1eko 632/2014 Foru Aginduan jasota daude (GAO, 234 zk., 2014-12-9).

4. **Urola Erdiko Mankomunitateari faktura elektronikoak bidaltzera behartutakoak.**

25/2013 Legea, Faktura Elektronikoaren Bultzadari buruzkoa, bere 4. artikuluan ezarri egiten da **hornitzaile jakin batzuk derrigortuta daudela Urola Erdiko Mankomunitateari fakturak formatu elektronikoan bidaltzea 2015eko urtarrilaren 15etik aurrera**.

Pertsona juridiko mota hauek egongo dira behartuta:

a) Sozietate anonimoak.

b) Erantzukizun mugatuko sozietateak.

c) Espainiar nazionalitatea ez duten pertsona juridikoak eta nortasun juridiko gabeko entitateak.

d) Zerga araudiak ezarritakoaren arabera, Espainiako lurraldean egoiliar ez diren entitateen sukurtsalak eta establezimendu iraunkorrak.

e) Aldi baterako enpresa elkarteak.

f) Interes ekonomiko taldeak, interes ekonomikoko Europako taldeak, pentsio

- una pate importante de los ayuntamientos de Gipuzkoa
- otros organismos públicos
- **Urola Erdiko mankomunitatea**

3. Las caracteristicas y ámbito del PGEFe están definidas por la Orden Foral nº 632/2014 de 1 de diciembre (B.O.G. nº 234 de 9/12/14).

4. **Obligados a remitir facturas electrónicas a Urola Erdiko mankomunitatea.**

En el artículo 4 de la Ley 25/2013 de Impulso de la Factura Electrónica, se establece que **determinados proveedores estarán obligados a remitir a Urola Erdiko Mankomunitatea las facturas en formato electrónico a partir del 15 de enero del 2015.**

Están obligadas los siguientes tipos de personas jurídicas:

a) Sociedades anónimas;

b) Sociedades de responsabilidad limitada;

c) Personas jurídicas y entidades sin personalidad jurídica que carezcan de nacionalidad española;

d) Establecimientos permanentes y sucursales de entidades no residentes en territorio español en los términos que establece la normativa tributaria;

e) Uniones temporales de empresas;

f) Agrupaciones de interés económico, Agrupaciones de interés económico


UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11, 1.a, 2. bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

funtsak, arrisku-kapitaleko funtsak, inbertsio funtsak, aktiboak erabiltzeko funtsak, hipoteka-merkatua erregularizatzeko funtsak, hipotekak titulizatzeko funtsak edo inbertsioak bermatzeko funtsak.

europea, Fondos de Pensiones, Fondos de capital riesgo, Fondos de inversiones, Fondos de utilización de activos, Fondos de regularización del mercado hipotecario, Fondos de titulación hipotecaria o Fondos de garantía de inversiones.

Faktura elektronikoak **Urola Erdiko Mankomunitateari** bidaltzeko betebeharraren salbuespenak:

- **5000 euro bitarteko fakturak paperean bidali ahal izango dira.** Arau honen **salbuespenak** ondorengo bi apartatuetan jasota daude.
- Fakturaren bat formatu elektronikoan aurkeztera behartuta egon diren hornitzaileak, aurrerantzean, behartuta egongo dira ondasun entrega eta zerbitzu prestazio guztietan faktura elektronikoa erabiltzera.
- Kontratazio prozeduren esleipendunak behartuta egongo dira faktura elektronikoa egitera eta igortzera, baldin eta esleipen zenbatekoa 5.000 eurotik gorakoa bada, alde batera utzita kasu bakoitzean fakturatzen den zenbatekoa.

Excepciones a la obligación de enviar facturas electrónicas a Urola Erdiko Mankomunitatea:

- **Podrán enviarse en papel las facturas por importe de hasta 5.000 euros**. Esta regla tiene las **salvedades** que se detallan en los dos apartados siguientes.
- Los proveedores que hayan estado obligados a presentar en formato electrónico alguna factura, en adelante, estarán obligados al uso de la factura electrónica en todas las entregas de bienes y prestaciones de servicios.
- adjudicatarios de procedimientos de contratación estarán obligados a expedir y remitir factura electrónica cuando el importe de adjudicación sea superior a 5.000 euros, con independencia del importe que se facture en cada caso.

**5.** Nahiz eta derrigorrezkoa ez izan autonomoek, profesionalek eta enpresek faktura elektronikorik aurkeztea aurreko paragrafoetan jasota ez dauden kasuetan, haiek guztiek fakturak formatu elektronikoan bidali ahal izango dituzte, hala nahi badute.

**5.** Debe recalcarse que, si bien no es obligatoria la remisión de facturas electrónicas por autónomos, profesionales, y empresas en aquellos supuestos no comprendidos en los párrafos anteriores, todos ellos podrán remitir sus facturas en formato electrónico si así lo decidieran voluntariamente.


UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11, 1.a, 2. bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

6. Gipuzkoako Foru Aldundiko faktura elektronikoen puntu orokorraren web gunean(https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua), jasota egongo dira puntu orokorrari atxikitako entitateen zerrenda, araudi aplikagarria, argibide gehiago eta puntu orokorrari eta fakturazio elektronikoari buruzko ohiko kontsultak, bai eta faktura elektronikoak egiteko programaren doako deskarga ere (ef4ktur).

7. Web horretan sartuta egongo dira, Foru Aldundiaren hornitzaileei dagokienez, hornitzaileen datuak kudeatzeko kanalak eta bidalitako fakturen tramitazio egoerari buruzko kontsulta.

8. Web berean jakinaraziko da nola egin kontsulta faktura elektronikoen bidalketaz eta faktura elektronikoen puntu orokorraren funtzionamenduaz

9. **Kontsultak egiteko harremanetarako pertsona.**

Kontabilitate Zerbitzuko harremanetarako pertsona Maitane Segurola da (tfnoa.: 943857319; e-posta: ueue@udal.gipuzkoa.net).

6. En la página web del Punto General (https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua), incluida en la "Sede electrónic@ de la Diputación Foral" se presentará la relación de entidades adheridas al PGEFe, la normativa aplicable, información ampliada y consultas frecuentes sobre el PGEFe y la facturación electrónica, así como el acceso para la descarga gratuita del programa de elaboración de facturas electrónicas ef4ktur.

7. En dicha web se integrarán así mismo, en lo referente a los proveedores de la Diputación Foral, los canales para la gestión de datos de los proveedores y la consulta sobre el estado de tramitación de las facturas remitidas.

8. En esa misma página web se informará acerca de cómo realizar consultas sobre la remisión de facturas electrónicas y funcionamiento del PGEFe.

9. **Contacto para la realización de consultas.**

La persona de contacto en el Servicio de Contabilidad es Maitane Segurola. (Tfno.: 943857319.; dirección de e-mail: ueue@udal.gipuzkoa.net).


UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11, 1.a, 2. bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus

## 10. Datu garrantzitsuenen laburpena:

✔**Urola Erdiko Mankomunitatea**

✔IFZ: P2000016B

✔Organo Kudeatzailea: L05200015

✔Unitate Izapidetzailea: L05200015

✔Kontabilitate bulegoa: L05200015

✔Sarrera puntua:

https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua

## 10. Resumen de datos más importantes:

✔**Urola Erdiko Mankomunitatea**

✔NIF: P2000016B

✔Organo gestor: L05200015

✔Unitdad tramitadora: L05200015

✔Oficina contable: L05200015

✔Punto General de entrada:

https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua

Azpeitia, 2015eko urtarrilaren 8a/ Azpeitia, a 8 de enero de 2015



UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11, 1.a, 2. bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus